

## BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 848

*EBAZPENA, 2019ko otsailaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, «Lehen Aukera» programan gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2019rako laguntzen deialdian egindako aldaketa bat argitaratzen da.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2019ko otsailaren 12an egin zuen bileran hartutako erabakiaren bidez, «Lehen Aukera» programan gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2019rako diru-laguntzen deialdia aldatzea onartu du, eta, Lanbideren Estatutuen 10.2.p) artikuluan xedatutakoaren arabera (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartua), erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea «Lehen Aukera» programan gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2019rako laguntzen deialdian egindako aldaketa (ebazpen honen eranskinean dago), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2019ko otsailaren 12ko bileran hartutako erabakiaren bidez onetsia.

Bigarrena.– Jakinaraztea laguntzen deialdian egindako aldaketa onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinak ondorioak izango baititu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdian egindako aldaketa onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 13a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

## ERANSKINA

## LEHEN AUKERA PROGRAMAN GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESETAN KONTRATATZEKO 2019RAKO LAGUNTZEN DEIALDIAN EGINDAKO ALDAKETA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko abenduaren 18ko bilan hartutako erabakiaren bidez, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeke 2019rako laguntzen deialdia onetsi zuen. Lehen Aukera programa argitara eman zen 2018ko abenduaren 28ko EHAAn (249. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez.

Deialdi honetako diru-laguntzak lotuta daude, hau da, lan-kontratuak izenpetu behar dira eta lan-kontratu horietako urteko gutxieneko ordainsari gordinek ezinbestean errespetatu beharko dute urte bakoitzerako ezarritako lanbidearteko gutxieneko soldata.

2018ko abenduaren 27ko BOEn (312. zk.), argitara eman zen abenduaren 21eko 1462/2018 Errege Dekretua, non ezarri baitzen 2019rako lanbidearteko gutxieneko soldata. Izan ere, soldata horretarako ezarritako zenbatekoa deialdi honetan eskatutako gutxieneko ordainsari gordina baino handiagoa zen behe-titulazio akademikoa daukaten pertsonen egiten zaizkien lan-kontratuarentzat; hori dela eta, beharrezkoa da gutxieneko ordainsari horren zenbatekoa aldatzea eta, horrekin batera, gainerako titulazioei dagokiena ere aldatzea, guztien arteko orekari eta koherentziari eustearren. Horretaz gain, dirulaguntzen zenbatekoa ere berrikusi behar da, ordainsari horietan oinarritutako proportzionaltasun-irizpideen arabera ezarri direlako.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2019ko otsailaren 12an onetsi du «Lehen Aukera» programan euskal enpresetan gazteak kontratatzeke laguntzen 2019rako deialdia aldatzea, zehaztutako hauen arabera:

Lehenengoa.– Deialdi horretako 3. artikularen 2.c) apartatuko taula aldatu eta honela uztea:

Titulazio akademikoa	Urteko gutxieneko ordainketa garbia (aparteko pagak barne)
Lizentzia, ingeniariaritz, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniariaritz tekniko, arkitektura tekniko eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	19.600,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	16.000,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	12.600,00 €

Bigarrena.– Deialdi horretako 6.1 artikuluko taula aldatu eta honela uztea:

Titulazio akademikoa	12 hiletik beherako praktika-kontraturako dirulaguntza	12 hileko edo gehiagoko praktika-kontraturako dirulaguntza	Kontratu mugagaberako diru-laguntza
Lizentzia, ingeniariaritz, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniariaritz tekniko, arkitektura tekniko eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	4.900,00 €	7.840,00 €	9.800,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.000,00 €	6.400,00 €	8.000,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.150,00 €	5.040,00 €	6.300,00 €

Hirugarrena.– Deialdi horretako 6.2 artikuluko taula aldatu eta honela uztea:

Titulazio akademikoa	12 hiletik beherako praktika-kontraturako dirulaguntza	12 hileko edo gehiagoko praktika-kontraturako dirulaguntza	Kontratu mugagaberako diru-laguntza
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura teknikoa eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	5.390,00 €	8.624,00 €	10.780,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.400,00 €	7.040,00 €	8.800,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.465,00 €	5.544,00 €	6.930,00 €

Laugarrena.– Erabaki honen bidez onartzen diren aldaketak aplikatu beharko zaizkie EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasitako lan-kontratu-erako dirulaguntza-eskaerei; argitaratu aurretik hasitako kontratu-erako eskaerei ere aplikatuko zaie, baldin eta erabaki honen bidez aldatutako urteko gutxieneko ordainsariaren eskakizuna betetzen badute.